

23. korrika

**HARRO
HERRI**

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



«Euskararen Herri Harroaren parte sentitzeko gonbita» egin du AEK-KORRIKAK, Iruñeko aurkezpen sozialean

Azarotik ari dira 23. KORRIKA aurkezten, eta antolatzaileek dagoeneko jakitera eman dituzte lasterketaren xehetasun guztiak. Gutxi falta da jada martxoaren 14rako, euskararen aldeko lasterketa erraldoia Irundik abiatzeko datarako. Ondoren, lekukoa 10 egun eta 11 gauz ibiliko da eskuz esku, euskararen aldarria Euskal Herriko bazter guztietara zabaltzen, Baionara heldu arte martxoaren 24an. Gaur egin dute aurkezpen soziala, Iruñean, mugarría ospatu eta egitasmoari ongietorria emateko.

Ekitaldia Nafarroako Antzerki Eskolan izan da, iluntzeko 19:00etan. Bertan izan da Ane Elordi Alburquerque KORRIKA koordinatzailea, AEKren Artezkaritza Kontseiluko kideek lagunduta. Eurekin batera, Euskal Herri osoko 100 gonbidatutik gora bertaratu dira: euskalgintzakoak, alderdi politikoetako ordezkariak, hedabideetako langileak, sindikatu etako kideak, eragile sozialak eta hainbat lagun gehiago.

Oholtzan, Elordik azaldu du edizio honek berariaz nahi duela euskal herritar oro «euskal komunitatearen, euskararen Herri Harroaren, parte sentiarazi», «eta, aurrerantzean, bizitzako arlo guztietan, euskaraz bizi nahi duen komunitatearen partaide bilakatu; KORRIKA, euskara bera bezala, denona delako». Halaber, Elordik hau aipatu du: «Euskarak aurrera egingo badu, herriaren erabakitasunagatik izango da; KORRIKAK aukera bikaina ematen digu herri-pultsua aktibatzen, aldarri tinko bat egiteko, pauso gehiago eman daitezen, herri-gogoari erantzutearren».

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika

**HARRO
HERRI**

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Clowna, txeloa eta dantza

Pantxika Lamur clowna jardun da aurkezle-lanetan, eta, publikoarekin elkarreraginean, komentatu du ezen «23. KORRIKA mundu berri bat balitz, herri-aldarrien mundua» izango litzatekeela. Harekin batera Ainhoa Egizabal dantzaria eta Eñaut Zubizarreta "Trigger" txelo-jolea ere aritu dira, beren arteaz KORRIKAREN aniztasunari azpimarra jartzen.

Edizio honen spota ikusteko aukera ere izan dute bertan bildutakoek.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus